

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %6,6 gehitu ziren 2006ko hirugarren hiruhilekoan

Merkataritza espezializatuaren salmentek %8,6ko urte arteko hazkundera izan zuten, eta espezializatu gabekoaren salmentek, berriz, %3,0koa

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %6,6an igo zituen 2006ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %4,2koa, termino errealetan. Datu hauekin, 2006ko lehenengo hiru hiruhilekoetan txikizkako salmenten hazkunde nominala %5,5 izan zen, eta hazkunde erreala %3,7.

Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2004	III	5,7	7,2	3,1
	IV	5,4	7,7	1,0
2005	I	1,6	2,9	-1,0
	II	2,8	2,8	2,8
	III	1,7	2,7	-0,3
	IV	0,4	0,4	0,3
2006	I	4,7	7,1	-0,5
	II	2,1	3,9	-1,6
	III	4,2	6,9	-1,0

Iturria: EUSTAT

Betiko txikizkako merkataritzak (espezializatua) salmenta nominalak %8,6 igo ditu 2006ko hirugarren hiruhilekoan, 2005eko denboraldi beraren aldean. Igoera nominal hori %6,9ko hazkunde-tasa bihurtzen da termino errealetan.

Azalera handi eta ertainetako txikizkako merkataritza (espezializatu gabea) %3,0 igo da aurtengo hirugarren hiruhilekoan, termino nominaletan. Urte arteko tasa errealaren aldakuntza %-1,0koa da, 2005eko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena pertsonen ekipamenduaren sektoreari dagokio; %15,6ko hazkunde nominala izan du eta termino errealetan %14,6ko tasa. Etxearen hornikuntzako produktuek %9,3ko hazkunde nominala eta %6,3ko hazkunde erreala izan dute. Elikagaiak hazkunde txikia izan dute: %2,3koa termino nominaletan. Horrenbestez, tasa ere negatiboa da, %-

2,6koa termino errealean. Bestelako Kontsumo Ondasunen produktuen salmentek (kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) hazkunde nominal neurrizkoagoa izan zuten, %0,2koa, eta hazkunde errealek ez zuten aldaketarik izan (%0,0).

Lurralde historikoetan, 2006ko hirugarren hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Araban izan zen hazkunderik handiena, %11,8ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %17,9 hazi ziren, eta espezializatu gabekoarenak, %1,4.

Bizkaiak tarteko lurralde-bilakaera izan du (%6,5); merkataritza espezializatuko salmentak %8,0 hazi ziren eta espezializatu gabekoarenak %4,0.

Gipuzkoan eman zen txikizkako sektoreko urte arteko salmenten gehikuntzarik txikiena (%4,6), txikizkako merkataritza espezializatuaren gehikuntza %6,1ekoa izan zen eta %2,0koa espezializatu gabekoarena, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera %0,7 izan zen, aurtengo bigarren hiruhilekoaren aldean. Lurraldeka honelakoa izan zen: Gipuzkoan %2,7 hazi zen eta Araban %0,3 baina Bizkaian %0,5 gutxitu zen. Txikizkako merkataritza sektorean langile kopurua %1,3 gehitu zen hiru lurralde historikoetan eta aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren aldean: Bizkaian %1,7 gehitu zen eta Gipuzkoan eta Araban %0,8.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>